

## LABURPEN-GAITASUNAREN GARAPENA ETA ESKOLAKO LABURPEN-TESTUEN PROZESAMENDUA

**Tesiaren egilea:** Unai Atutxa Barrenetxea

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila/Institutua:** Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila

**Doktorego-programa:** Hizkuntzaren Analisia eta Prozesamendua

**Jakintza-arloa:** Hizkuntzalaritza Konputazionala eta Didaktika

**Tesi-zuzendaria:** Mikel Irukieta Quintian eta Arantza Díaz de Ilarraza Sanchez

**Tesiaren laburpena:**

Tesi-lan honetan, laburpen-gaitasunaren garapenari heldu diogu, eskolako laburpen-testuen prozesamenduaren bidez (Atutxa-Barrenetxea, 2022). Bi helburu nagusi ditugu: i) laburpen-gaitasunaren egoeraren azterketa egitea, laburpenaren oinarri teorikoak finkatuz eta laburpen-testuen deskribapena eginez. ii) Hezkuntza-eta hizkuntza-teknologiak erabiliz laburpena eskolan lantzeko eta ebaluatzeko proposamena egitea.

Helburuak erdiesteko, RST hurbilpena (Mann eta Thompson, 1987) eta Hizkuntzaren Prozesamenduko (HP) teknikak erabili ditugu. Lan honetan, Lehen Hezkuntzako (LH) ikasleek curriculumeko edukiak lantzeko erabiltzen dituzten 5 testuren laburpenak bildu eta aztertu ditugu. Bi adituk laburtu beharreko 5 testu horiek egitura diskurtsibotik aztertu dituzte, testuon laburpenak landu dituzte eta ikasleek laburtzeko prestatu. Ondoren, euskarazko laburpen-corpora bildu dugu (LabEus), horretarako berariaz sorturiko Compress-eus tresnarekin; LabEus LHko eta unibertsitateko ikasleen 1.758 laburpenek osatzen dute. Bertako 80 laburpenekin, EskoLab corpora eratu eta aztertu dugu, laburpenaren bi fase nagusi bereiziz: i) sortutako laburpena, hots, azken produktua eta ii) laburpen-prozesua. Corpora aztertu ahal izateko, laburpenen ebaluaziorako baliabideak eta prozedurak diseinatu eta sortu ditugu. Aurrena, metalaburpenak eratzeko algoritmoa sortu dugu, horiekin ebaluazio automatikoa diseinatzeko. Bestalde, laburpenak egin eta eskuz ebaluatzeko errubrika osatu dugu, hipotesiak erantzuteko EskoLab corpusean. Azkenik, ikasleentzat, diskurtso-egituraren hierarkiari buruzko atzeraelikadura automatikoaren bi bertsio aurkeztu ditugu: i) Hierarkia Mailen Arteko Metodoan (HIMAM) eta ii) Galderetan Oinarritutako Metodoan (GOM) oinarrituak.

Gainera, baliabide horiek erabiliz, hiru tailer burutu ditugu: bi Hezkuntza Fakultate bateko graduiko ikasleekin, euskaraz; eta bestea EHUko master bateko ikasleekin, ingelesez. Helburua laburpen bat egiteko behar diren irizpideak barneratuz laburpen-gaitasuna garatzea izan da, edota laburtzeko teknika ezberdinak erakustea.

Emaitzei dagokienez, laburpenak egiteko COMPRESS-EUS (Atutxa et al., 2017) eta laburpenen feedback automatikoa jasotzeko baliabideak sortu dira (ikus 1. irudia eta 2. irudia). Horrez gain, LHko eta unibertsitateko laburpenen artean aldea egon da, baita monodokumentuetatik edo multidokumentuetatik abiatuz laburtu denean ere. Emaitzen arabera, tailerrak lagungarriak izan dira laburpen hobeak sortzeko, eta horretan zerikusia izan du automatikoki eskaintako hierarkiaren atzeraelikadurak. Laburpen-prozesua aztertzean, estrakzioetik abiatuz abstrakzioa egitean ikasleek laburtu beharreko testuari (testuaren oinarritzko diskurtso-unitateei zehazki) nolako aldaketak egin dizkioten ikusi dugu, eta testuaren ezaugarriek ikaslearen laburpenean eragina izan dutela.

GIZA-GORPUTZA ETA ELIKAGAIAK	Testu konprimitua
<b>GIZA-GORPUTZA ETA ELIKAGAIAK</b>	<b>GIZA-GORPUTZA ETA ELIKAGAIAK</b>
Janari edo edari bakoitza, hau da elikagai bakoitza, substantzia edo mantenugai jakin batzuek osaturik dago.	Janari edo edari bakoitza, hau da elikagai bakoitza, substantzia edo mantenugai jakin batzuek osaturik dago.
Mantenugai bakoitzak zeregin jakin bat du gure gorputzaren osaketan eta funtzionamenduan.	Mantenugai bakoitzak zeregin jakin bat du gure gorputzaren osaketan eta funtzionamenduan.
Horregatik, janari batek beste batek baino hobeto erantzun diezaiotke gorputzaren behar jakin bati.	
Betetzen duten funtzioaren arabera, elikagaiak hiru multzotan sailkatzen dira.	Gorputzak, hazten ari denean, zelula eta ehun gehiago sortzen lagunduko duten mantenugaiak beharko ditu.
<b>Gorputzak, hazten ari denean, zelula eta ehun gehiago sortzen lagunduko duten mantenugaiak beharko ditu.</b>	<b>Laburpena eskuz zuzentzeko</b>
Eginkizun hori, zelula berrak sortzea, alea, betetzen lagunduko duten mantenugaiak dituzten elikagaiak erabiltzale deritze.	<b>GIZA-GORPUTZA ETA ELIKAGAIAK</b>
Bestalde, lasterka egiteko edo hotz handia dagoenean gorputza berotzeko, energia emango dion erregai bat beharko du gorputzak.	Janari edo edari bakoitza, hau da elikagai bakoitza, substantzia edo mantenugai jakin batzuek osaturik dago. Mantenugai bakoitzak zeregin jakin bat du gure gorputzaren osaketan eta funtzionamenduan.
	Gorputzak, hazten ari denean, zelula eta ehun gehiago sortzen lagunduko duten mantenugaiak beharko ditu.

Eragiketak:  
 $0 \rightarrow 0 \rightarrow 1 \rightarrow 0 \rightarrow 1 \rightarrow 0 \rightarrow 0 \rightarrow 1 \rightarrow 1 \rightarrow 1 \rightarrow 1 \rightarrow 0 \rightarrow 1 \rightarrow 1 \rightarrow 0 \rightarrow 1 \rightarrow 1 \rightarrow 0$

Extrakziozko laburpena:  
 [GIZA-GORPUTZA ETA ELIKAGAIAK.]  
 [Janari edo edari bakoitza, hau da elikagai bakoitza, substantzia edo mantenugai jakin batzuek osaturik dago.][ Mantenugai bakoitzak zeregin jakin bat du gure gorputzaren osaketan eta funtzionamenduan.]  
 [Gorputzak,][ hazten ari denean,][ zelula eta ehun gehiago sortzen lagunduko duten mantenugaiak beharko ditu.]

Abstrakziozko laburpena:  
 GIZA-GORPUTZA ETA ELIKAGAIAK.  
 Janari edo edari bakoitza, hau da elikagai bakoitza, substantzia edo mantenugai jakin batzuek osaturik dago. Mantenugai bakoitzak zeregin jakin bat du gure gorputzaren osaketan eta funtzionamenduan.  
 Gorputzak, hazten ari denean, zelula eta ehun gehiago sortzen lagunduko duten mantenugaiak beharko ditu.

## 1. irudia. COMPRESS-EUS tresna eta bertatik lortutako estrakziozko laburpena, bere kodea eta abstrakziozko laburpena.

Eragiketak			Testu osoaren hierarkia maila									
0	0	1	1	1	0	1	1	1	1	0	1	
Testua	Laburtu beharreko testua		Ideien garrantzia		Mantentutako ideiak garrantziaren arabera							
1	GIZA-GORPUTZA ETA ELIKAGAIAK.		2		8,5							
1	Janari edo edari bakoitza, hau da elikagai bakoitza, substantzia edo mantenugai jakin batzuek osaturik dago.		1		1. maila 2. maila 3. maila 4. maila 5. maila 6. maila 7. maila							
1	Mantenugai bakoitzak zeregin jakin bat du gure gorputzaren osaketan eta funtzionamenduan.		2		Testu osoa	100%	60%	48%	43%	43%	50%	25%
1	Horregatik, janari batek beste batek baino hobeto erantzun diezaiotke gorputzaren behar jakin bati.		3		Akats posiblea	-	-	-	-	-	KONTUZ	-
1	Betetzen duten funtzioaren arabera, elikagaiak hiru multzotan sailkatzen dira.		3		1.azpitestua	100%	50%	43%	0%	0%	ez dago	ez dago
1	Gorputzak		2		Akats posiblea	ez dago	0%	33%	33%	60%	0%	25%
1	hazten ari denean,		3		2.azpitestua	ez dago	0%	33%	33%	60%	0%	25%
1	zelula eta ehun gehiago sortzen lagunduko duten mantenugaiak beharko ditu.		2		Akats posiblea	KONTUZ	KONTUZ	KONTUZ	KONTUZ	-	KONTUZ	-
1	Eginkizun hori, betetzen lagunduko duten mantenugaiak dituzten elikagaiak erabiltzale deritze.		3		3.azpitestua	ez dago	100%	38%	42%	29%	50%	ez dago
1	Bestalde,		5		Akats posiblea	-	-	KONTUZ	-	-	KONTUZ	-
1	lasterka egiteko		4		4.azpitestua	ez dago	100%	100%	54%	50%	75%	ez dago
1	edo hotz handia dagoenean		5									

## 2. irudia. HIMAM metodoan oinarritutako atzeraelikadura automatikoa.

### Erreferentzia bibliografikoak:

- Atutxa-Barrenetxea, U. (2022): *Laburpen-gaitasunaren garapena eta eskolako laburpen-testuen prozesamendua* [Doktoretza-tesia, UPV-EHU]. Archivo Digital para la Docencia y la Investigación de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU).
- Atutxa, U.; M. Iruskieta, M.; Ansa, O. eta Molina, A. (2017): «Compress-eus: I(ra)kasleen laburpenak lortzeko tresna», *EUDIA: Euskararen bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza-III*, 87-98
- Mann, W. C. eta Thompson, S. A. (1987): «Rhetorical Structure Theory: A Theory of Text Organization», *Text*, 8(3), 243-281.